

Dena da didar, gazte irrintzi,
arnas berritan zorion antzi;
aur, txori, galburu
irrika dituzu.
Nik orobat gazte doart biotz-barru.

Jator tantai dut euri udako,
au aiña eder etzait ezertxo;
larriren larria
maiz naiz ibillia,
alarik ere zait txit arrigarria.

Maiko ostean xamur dekusgu
ezpain-egalean irriaren keiñu.
Olaxe udaldian
arrasti txit eztian
dunbots, oiñaztu ta euria nastian.

GURE EGOITZA

*Eguneroko lanaren ondotik laket zaigu atsedean une.
Gaur, eguerdiko bazkari ostean, uztaillaren asikeran, Lore-
der-en geran guztiok etxeaurreko intxaur-ondo mardoaren
itzalpean, esertoki zapaletan egokitu gera. Bereala, aurtxoak
eta guk, bakoitzak adierazi du barruan duena. Solasketa xa-
mur ondoren, barne-zoriari ezin eutsita edo, Jone-k abots
bete ta zoliz Elizanburu'ren kanta asi digu.*

Doiñu: «Fkusten duzu goizean...».

Gaur bazkal ondoan denok,
senar-emazte ta umeok,
etxe aurrean jarriok,

—pozeren aindiz biotza lertzen-
kanta ditugu guztiok,
dardaraziaz bazterrok,
zolituz geron eztarriok.
Elizanburu-bertsuok:

«Ikusten duzu goizean
argia hasten denean,
menditto baten gainean
etxe ttipitto aintzin xuri bat,
lau haitz ondoren erdian,
xakur xuri bat atean,
iturino bat aldean?
Han bizi naiz bi bakean.

Nahiz ez den gaztelua,
maite dut nik sor-lekua,
aiten aitek hautatua.
Etxetik kanpo zait iduritzen
nonbeit naizela galdua;
nola han bait-naiz sortua,
han utziko dut mundua,
galtzen ez badut zentzua.

Etxean ditut nereak,
akilu, haitzur, goldeak,
uztarri eta hedeak;
jazko bihiezt ditut oraino
zoko guztiak beteak.
Nola iragan urteak
emaiten badu bertzeak?
Ez gaitu hilen goseak.

Landako hirur behiak,
esnez hanpatu ditiak,

ahatxe eta ergiak (1),
bi idi handi kopeta zuri,
bizkar beltz, adar handiak,
zikiro (2), bildots guriak,
ahuntzak eta ardiak,
nereak dire guziak.

Ez da munduan gizonik,
erregerik ez printzerik,
ni bezein urusa (3) denik;
ba dut andrea, ha dut semen,
ha dut alaba ere nik;
osasun ona batetik,
ontasun aski bertzetik,
zer behar dut gehiago nik?

Goizean hasiz lanean,
arratsa heldu denean,
nausia naiz mahainean;
girstino bat ona dut artu
nik emaztea hartzean,
ez du melle egunean
sartuko uste gabean
xingar hezurrik eltzean.

Piarres ene sernea,
nahiz oraino gaztea,
da mutiko bat ernea;
goizean goizik bazken (4) erdira
badarama artaldea;
segituz ene bidea,
nola baitu egitea,
ez du galduko etxea.

-
- (1) Zekor.
(2) Aari.
(3) Zoriontsu.
(4) Larre.

Ene alaba Katalin,
bere hameka urtekin,
ongi doha amarekin;
begiak dltu amak bezala
zeru zola (5) bezin urdin;
uste dut denborarekín,
oraiko itxurarekin,
andre on bat dion egin.

Ez dugu behar lurrean,
ongi bizirik etxean,
utzi laguna gosean;
ez du beharrak sekulan jotzen
gure etxeko atean,
non ez duen mahainean,
oturuntza ordu denean.

Ene andrea Maria
ez dan andre bat handia,
bainan emazte garbia;
irri batentzat badut etxean
nik behar dudan guzia:
gald'egiten dut grazia,
dudan bezala hasia,
akabatzeko bizia».